

lizunki edo era nabarmenean aurkeztu be.  
Ederra ta egia berez ditugu aratz, txukun. Ez  
daigun, iñoiz be, araztasun ori lorrindu.  
Gaiztakeri andia litzake.

*Igotz*

## ZORI GAIZTOKO IZADIA...!

*«Ene txoriño maitea, orren  
ixilik zer dezu? zer naigabe  
latz-illunak ikaraz ipiñi zai-  
tu...» (Emeterio Arrese).*

Egunaren argia laburtuaz udara eroritzen  
danean, udazkenak dakarzkigu neguaren  
ojuztatu beltzak. Utzerazitzen dira guk iza-  
ten ditugun mendi erraldoietako ibillerak eta  
berriz biurtzen gera ibarrak zearkatzen di-  
tuzten mendi apal baiñan eder eta abetaltzai-  
lleetara; gaztediaren udaberrian berek al-  
tzoan gordetzen duten oroz-gaintasuna eraku-  
tsiaz zorionerunzko bideak iriki zizkiguten  
mendiak.

Mendi apalotan zear berriz ibiltzerakoan,  
nere oldozmena, sarritan, egaz dijoa, batzue-  
tan urrutiko mendi aundietara, urrengo seas-  
katik inguratzen nauten ikuspegi maite oie-  
tara; eta iñoiz, noizbait igo giñan arriskudun  
mendiren baten oroitzapenetan. Bai, igaro-  
takoak!, izan ere miragarri da igarotakoak la-  
gatzen digun oroitzapena, zoritxarreko gau-  
zak maiz aiztutzen zaizkigu eta ordu zorion-  
tsuak bakarrik gordetzen dira gure buruan.  
Minutu bateko atsegiñak ez ote du balio or-  
du beteko penak aña? Mendi erraldoi bat  
menperatzeak dakarzkigun oroitzapen atse-  
gingarriak, urteak ere ezin dizkigute burutik  
kendu; baiñan gure mendi apalak ditugu as-  
koz ere obeto gogaltzen eta idaroki-erazten

dizkigunak, berak bai ditugu gure gogoaren ikaspide eta gorde-leku.

Zelaiak zurdak zillar kolorez estaltzen zizuten udazkeneko goiz batean, soilki nijoan poliki-poliki maldaz goruntz, nere oinpean, zurdak perlaz ornituriko belarrak kirri-karra otsez zein eta leiar zeezko bide batetik joango nintzakean bezela. Noizik beiñean, geldidunak egiten nitun, be aldetik gure erria estaltzen zuen lainozko itxasoari begira. Bere gaiñetik azaltzen ziran mendiak, baserri-txoen mota zuriekin, kairoz beteriko ugarteak ziruditen. Ikuskizun ura oso ezaguna nuen; baiñan orduan ere, beste zenbait aldiz bezela, ezitsa eta maite-miñez begiztatu nuen.

Mota guzietariko zuaitzak ditulako edo, aurtzarotik lilluraturik naukan baso zabartsu batean barrendu nintzan; bidetxiurrari jaramonik egin gabe, orron nenbillen nere kautan murgildurik. Zuaitzetan oraindik orbel bihurtu gabe jarraitzen zuten urre kolorezko orrien tartetik eguzki printzen txirristadak erortzen ziran lurraldera.

Basoko argi una batetik oartu nintzan nola eguzki dizdiratsu arek lainoak meetu eta sakabanatzen zituen eta zerbaiten billa lez igesik goruntz zijoaztela. Ura zan ura argien joko gelgaia! Eibar'ek mardulki nabaritzen zitun bere jantzi apaingarriak, Zuloaga'ren paletak pintatu ezindako bestean, berak lenengokoz argia ikusi zuen erria, Izadiari Egilleak pintzel berdinkaitzarekin bizia eman bai zion.

Lur-azalean agiri zan pago sustrai batean ixeri nintzan, laino apartsuak nola suntsitzen ziran begira. Arbola magal batetik txantxagorriren baten txorrotxio doñu dirdari zorrotzak eltzen ziran; basoko isiltasuna gozoki zulatuaz, bere eresi zoragarriak ezitsuago

zulatzen zuten nere entzumena. Una batzuetan zorabiatu rik gelditzen nintzan bere sortzetiko izamenak zekarkidan sinfonia bereziarekin. Zuaiz-burutik mogimentu jostakinez, biziki, udazkeneko goizearen otza leguntzera zetorren eguzkiari zuzentzen zizkion bere eten gabeko kanta k. Txantxagorri giza-joa! etzuen luzaroko eguzkiaren epela...; ne-gu zakarraren atzaparrak urbil zebiltzaten.

Bere doñu otsak zuaitz adarretan zear egan zijoazten aruntzago kantuz ari ziran beste txori aienekin nastutzera: guzien artean betetzen zuten ereskontza ura, ze entzungarri! Beethoven, Wagner, Schubert eta gañerako musikagille ospetsuok, zuen pare gabeko gizontasunakin ere ezin izan duzute berdindu Jaunaren Izamena.

Gure mendietan eguzkiari, ikuskizunari edo zeuen maiteñoari abesten diezuten txoritxo maiteok! Zuek ez al zerate Euterpe'ren aurkezlariak? Zuek, gure artzaien txistua idaroki zenutenak?

Guztiz lilluraturik, soilki nengoan entzundele, nere atzekaldetik atera zan tiro otsak eragin ninduanean, eta txori errukigarri ura erori zan sorgor nere oiñengandik urrean. Irriparrezko arpegiakin eta garaille antzera, an agertu zan eizari bat; bere buru gaixoa gizon etsaiengandik gordetzeko gauza etzan egazti gizajoa, ilda zegoan tokitik jasotzera. Zalantza gabe musika tresnarik zorakorrena, berunak zeetuta utzi zuen ura. Una artan ez nuen jakin zer egin. Egite basatiargaitik agirikatzea pentsatu nuen, baiñan zertarako? Ez al zuen, ba, lege-arauez eizatzen? Ezetsirik, bizkarra eman eta aldetzea erabagi nuen gertaera nazkagarriaren toki artatik.

Geiago ez naiz egurasten Ibur eta Aixola marmariozko doñudun errekatxu aietan ze-

arkatuz, berek apainduaz nere begien jostari ziran arraintxoak zianuro ilkorrak sakaildu zituztelako. Orain ez ditut entzuten baso ostotsuetan txantxangorria eta urretxindorra; eztago eresirik, ez; baiñan, ez orraitioz basoak isiltasuna estalgarrizat duelako, ez! Aspaldi trankada otsak oartzten ditut, garai batetik onunz urbiltzen dijoazen trankadak, eta egun batean igarri nion baso eder ura ebakitzen diarduenen aizkora otsak zirela.

Zori gaiztoko Izadia...!

*San Martin'dar Jon*

## MAITAGARRIEN LURRALDEA

Iñok ba'leki nun dagoan nire erregearen jauregia, aidean urtuko litzake jauregi ori. Zidar zuri dira aren ormak, urre bizi aren gainkia. Nire erregiña, zazpi barrube daukazan egoitzean bizi da; ta zazpi aginterriak balio eben aiña ordaindu bear izan zan arek daroan bitxia. Baiña itxi, arren, ama, ta ixilixillik esango dautzut nun dagoan nire erregearen jauregia. Begira: an, albaaka ontzia nun? Antxe, etxe-gaiñeko bazter aretan dago.

Errege-alaba lo datza, sekula iñok ez ibilli ez ikusi bako zazpi itxasoen azken-ondartzan lilluratua. Ezin dau iñok ludian, neronek ezik, idoro. Entzun: apainki dotorez estalita daukaz besoak, eta txirlarri-tantak belarrietan. Aren ule-mataza joria beeraiño eltzen yatzu. Nik neure makiltxo miresgarriz ikutzean, orduantxe itxartuko da; eta irribarre egitean, bitxiak jausiko yakoz ezpanetatik. Baiña itxi, arren, ama, ta ixilka esango dautzut: errege-alaba, an dago, albaaka ontzia aurkitzen dan etxe-gaiñeko bazter aretan.